

1. Enpresaren ondarea

1.1. ENPRESAREN ONDAREA

Enpresa unitate ekonomiko bat da, eta merkatuari ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera bat garatzea du helburu, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak koordinatuz.

Kontabilitatearen helburua enpresaren errealitate ekonomiko eta finantzarioari buruzko informazioa (irudi fidela) eskaintzea da. Kontabilitatea enpresako informazio-sistemen parte da, eta ekonomia- eta finantza-informazioa ematen die eragile ekonomikoei (bezeroei, hornitzaileei, hartzekodunei, zuzendariei, akziodunei, erakunde publikoei eta abarri), bakoitzak bere erabakiak har ditzan. Kontabilitatearen metodoa informazio ekonomikoa identifikatzean, balioestean eta komunikatzean datza, teknika jakin batzuen bidez, enpresan dagoen aberastasunari eta horrek denboran zehar izan dituen aldaketei buruzko informazioa emateko helburuarekin.

Baina, zer da aberastasuna? Aberastasunaz ari garenean, balioespen ekonomikoa duten ondasun, eskubide eta obligazioei buruz ari gara, enpresak bere helburuak lortzeko behar dituenak. Kontabilitatearen ikuspuntutik, aberastasun horri «ondare» esaten zaio. Ondorioz, ondarea enpresarenak diren eta ekonomikoki balioetsi daitezkeen ondasun, eskubide eta obligazioen multzoa da, enpresak bere produkzio-jarduera garatzeko behar dituenak. Ondarea eta bere neurketa dira kontabilitatearen oinarritzko helburuak. Enpresa-ondarea une jakin bati dagokio beti, hau da, data jakin bati. Horregatik esaten da izaera estatikoa duela.

Hala ere, kontabilitateari une jakin batean enpresan dagoen ondarea ez ezik, enpresa-jardueraren ondorioz denboran zehar ondare horrek izan duen bilakaera zehaztea ere interesatzen zaio. Bilakaera hori aztertuz gero, enpresa-aberastasunaren gehikuntza edo murrizketa kalkulatu ahal izango da, edo, bestela esanda, enpresak bere jarduerarekin lortutako mozkina edo galera. Enpresa-jardueraren ondorioz ondarean gertatzen den aldaketa horri «emaitza» deitzen zaio. Emaitza magnitude dinamiko bat da eta denbora-tarte jakin baterako kalkulatzen da. Denbora-tarte horri «ekitaldi ekonomiko» deitzen zaio, normalean 12 hilabeteko iraupena du eta urte naturalarekin bat etortzen da (baina ez da nahitaez horrela).

Adierazi dugun bezala, enpresa-ondarea ekonomikoki balioetsi daitezkeen ondasunek, eskubideek eta ordainketa-obligazioek osatzen dute. Defini dezagun kontzeptu horietako bakoitza:

- **Ondasunak:** enpresaren jabetzako ekoizpen-faktoreak dira, jarduera ekonomikoa garatzeko erabiltzera (garraio-elementuak, makineria, ekipo informatikoak, eraikinak, altzariak, etab.), eraldatzera (lehengaiak, fabrikatzen ari diren produktuak, etab.) edo saltzera (salgaiak, produktu bukatuak, etab.) bideratuko dituenak.
- **Eskubideak:** enpresa zerbait jasotzeko moduan jartzen duten egoera juridikoak dira. Normalean, jaso behar den hori diru-kopuru bat izaten da (kobratzeko dauden salmentak, Ogasunaren zergen itzulketak, etab.).
- **Obligazioak:** enpresa zerbait emateko moduan jartzen duten egoera juridikoak dira, beste pertsona edo erakunde baten zordun bihurtzen duten obligazioak hartzearen ondorioz (hornitzaileekiko zorrak, kreditu-erakundeekiko zorrak, etab.).

Elementu horiek guztiek enpresaren ondarea osatzen dute, baina denak ez dira enpresaren aldekoak: ondasunak eta eskubideak enpresaren aldeko elementuak dira eta, ondorioz, izaera positiboa dute; hirugarrenekiko obligazioek, berriz, konnotazio negatiboak dituzte. Hori kontuan hartuta, enpresaren ondarea ekuazio honen bidez adieraz daiteke:

$$\text{Ondasunak} + \text{Eskubideak} - \text{Obligazioak} = \text{Ondare garbia} \quad (1)$$

Ekuazio horrek enpresan dagoen aberastasun garbiari buruzko informazioa ematen digu. Ondare garbia, edo besterik gabe netoa, enpresaren ondasunen eta eskubideen eta hirugarrenekiko dituen obligazioen arteko diferentzia da. Ondare garbi hori enpresaren jabeena da, eta enpresak duen aberastasun garbia islatzen du. Ondare garbiaren jatorrian, batez ere, jabeek egindako ekarpenak eta enpresak denboran zehar sortu eta banatu ez dituen mozkinak daude.

1.2. KONTABILITATEAREN OINARRIZKO EKUAZIOA

(1) ekuazioa enpresa-ondarearen adierazpentzat hartuko dugu. Ondasunak eta eskubideak ekuazioaren alde batean jartzen baditugu, eta beste aldera jabeek egindako ekarpenak (ondare garbia) eta enpresak hirugarrenekin dituen obligazioak eramaten baditugu, honako ekuazio hau izango dugu:

$$\text{Ondasunak} + \text{Eskubideak} = \text{Obligazioak} + \text{Ondare garbia} \quad (2)$$

Kontabilitateak «aktibo» terminoa erabiltzen du ondasun eta eskubide guztiak izendatzeko, eta «pasibo» terminoa, hirugarrenekin hartutako obligazioak adierazteko. Termino berri horiek (2) ekuazioan sartzen baditugu, kontabilitatearen oinarrizko identitatea edo kontabilitatearen oinarrizko ekuazioa lortuko dugu:

$$\text{Aktiboa} = \text{Pasiboa} + \text{Ondare garbia} \quad (3)$$

Orain, ekuazio horren osagai bakoitza zehatz-mehatz aztertuko dugu.

1.2.1. Aktiboa

Aktiboa enpresak bere jarduera aurrera eramateko erabiltzen dituen ondasun eta eskubideen multzoa da. Ondasun eta eskubide horiek erabiliz lortzen ditu enpresak bere sorrerako helburuak.

Kontabilitate Plan Orokorrek honela definitzen ditu aktiboak: «Enpresak ekonomikoki kontrolatzen dituen ondasunak, eskubideak eta bestelako baliabideak, iraganeko gertakarien ondorioz sortutakoak, eta enpresari etorkizunean irabaziak edo etekinak emango dizkietenak».

Kontabilitaterako funtsezko bi alderdi daude: lehenik eta behin, enpresaren aktiboak identifikatu behar dira, eta, ondoren, balioespen bat eman behar zaie.

Aktiboak identifikatzean, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Ondasunak edo eskubideak dira.
- b) Zuzenean edo zeharka, etekinak sortzeko gai izan behar dute, bai erabilera-
ren bidez, bai salmentaren bidez.
- c) Enpresaren jabetzakoak izan behar dute, edo, gutxienez, enpresak ekono-
mikoki kontrolatu behar ditu.

Komeni da adieraztea aktibo batek etekinak sortzeko duen gaitasuna zehaztea ez dela beti erraza. Hala ere, oso garrantzitsua da hori egitea; izan ere, Kontabilitate Plan Orokorrek dioenez, aktibo bat azaleratzeko aktibo horretatik etekinak lortzeko aukera ikusi behar da eta, gainera, fidagarritasunez balioesteko aukera eduki behar da.

Bestalde, elementuak enpresaren jabetzakoak izan edo, behintzat, ekonomikoki kontrolatuta egon behar duela esaten dugunean, esan nahi dugu ondasunaren jabetza juridiko osoa azken ordainketa egin arte eskuratzen ez bada ere, enpresak ondasun hori bere aktiboan sartuko duela, erabiltzen eta kontrolatzen duelako. Horixe gertatzen da, esate baterako, higiezin bat epera erosten denean.

Aktiboak identifikatu ondoren, balioetsi egin behar dira. Aktiboen balioespen-irizpide ohikoena kostu historikoa da, hau da, erosketa-prezioa, aktiboa erositik bada; edo produkzio-kostua, enpresak berak fabrikatu badu. Hala ere, egungo Kontabilitate Plan Orokorrek beste balioespen-irizpide batzuk ere ahalbidetzen ditu.

Honako taula honetan, enpresa baten aktiboa osatzen duten elementuen hainbat adibide agertzen dira.

Aktiboko elementuen adibideak.

- **Lur eta ondasun naturalak:** hiri-orubeak, landa-finkak, meategiak eta harrobiak.
- **Eraikinak.**
- **Makineria:** merkaturatzen dituen produktuak ekoizteko erabiltzen diren makinak.
- **Garraio-elementuak:** pertsonak, animaliak, ondasunak edo salgaiak lurretik, itsasotik edo airetik garraiatzeko erabil daitezkeen mota guztietako ibilgailuak.
- **Altzariak:** altzariak, materiala eta bulegoko ekipoak, oro har.
- **Informazioa prozesatzeko ekipamenduak:** ordenagailuak eta gainerako multzo elektronikoak.
- **Aplikazio informatikoak:** programa informatikoak, horien jabetza edo erabilera-eskubidea enpresarena denean.
- **Jabetza industrialak:** patenteak, asmakizunak, markak, izen komertzialak eta abar, horien jabetza edo erabilera-eskubidea enpresarena denean.
- **Salgaiak:** enpresak erosi eta eraldatu gabe saltzen dituen produktuak.
- **Bankuak, kontu korrontea (k/k):** enpresak bankuko kontu korrontetan utzitako dirua.
- **Kutxa, euroak:** eskudirua.
- **Bezeroak:** enpresaren salgai- edo zerbitzu-salmentetan sortutako epe laburreko kobrantza-eskubideak, fakturan edo antzeko agirietan dokumentatuak.
- **Zordunak:** epe laburrean kobratzeko dauden eskubideak, salgaiak ez diren ondasunak saltzean edo zerbitzu atipikoak eskaintzean sortuak, eta fakturan edo antzeko agirietan dokumentatuak. Elementu honen eta bezeroen kontuaren arteko desberdintasuna kobratzeko eskubidea sorrarazten duen eragiketaren izaeran datza. Bezeroen kontuak enpresaren jarduera nagusiari lotutako eragiketetan du jatorria (adibidez, salgaien salmentan), eta zordunen kontuak jarduera nagusi horri lotuta ez dauden beste eragiketa batzuetan du jatorria (adibidez, alokairu batean).
- **Epe luzeko edo laburreko kredituak:** enpresak emandako diru-maileguengatik kobratzeko dauden eskubideak. Epe luzekoak edo laburrekoak dira, zorraren mugaguna (kobrantza-data) 12 hilabetetik gorakoa edo txikiagoa den kontuan hartuta.
- **Epe luzeko edo laburreko ibilgetua besterentzeagatiko kredituak:** ibilgetu-elementuak (materialak edo ukiezinak) saltzeagatik sortutako kobrantza-eskubideak. Epe luzekoak edo laburrekoak dira, kobrantza-eskubideak duen muga-egunaren arabera.
- **Epe luzeko edo epe laburreko ondare-tresnetan egindako finantza-inbertsioak:** beste enpresa batzuek jaulkitako akzioetan (burtsan kotizatzen dutenak ala ez) egindako inbertsioak. Epe luzekoak edo laburrekoak dira, enpresak akzio horiek epe laburrean saltzeko edo ez saltzeko duen asmoaren arabera. Enpresak akzioak gainbalio bat lortu bezain laster saltzeko asmoz eskuratzen baditu, epe laburrean sailkatuko ditu, berehala saltzeko asmoa baitu. Aldiz, epe jakin batean mantentzeko asmoz eskuratzen baditu, epe luzeko inbertsio gisa sailkatuko ditu.

1.2.2. Pasiboa eta ondare garbia

Orain, kontabilitatearen oinarriko ekuazioaren beste aldean jarriko dugu arreta, pasiboa eta ondare garbia (edo netoa) zer diren azaltzeko.

Kontabilitate Plan Orokorrek honela definitzen ditu pasiboak: «Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako gaur egungo obligazioak, eta hauek kitatzeko etorkizunean irabaziak edo etekin ekonomikoak sor ditzaketen baliabideak besterentzea espero du enpresak».

Pasiboak enpresa batek hirugarren pertsonekin dituen zorrak edo ordainketa-obligazioak dira. Betebehar horien jatorria enpresak iraganean egindako kontratuetan egongo da, bere jarduera garatzeko aukera emango dioten aktiboak edo zerbitzuak jasotzearen truke. Kontratu horien arabera, enpresak konpromisoa hartzen du bere aktiboak (normalean, dirua) etorkizunean hirugarren pertsoneri emateko. Pasiboak enpresatik kanpoko finantzaketa-iturriak dira.

Bestalde, ondare garbia aktiboaren eta pasiboaren arteko diferentzia da. Kasu honetan, ondare garbiak hirugarren pertsonen eskatu ezin dituzten enpresaren finantzaketa-iturri propioak barneratzen ditu.

Kontabilitate Plan Orokorrek honela definitzen du ondare garbia: «Enpresaren aktiboen hondar-zatia da, pasibo guztiak kendu ondoren. Bazkideek edo jabeek egindako ekarpenak barneratzen ditu, bai enpresa eratzen denean, bai ondoren egindakoak, pasibotzat hartzen ez direnak, eta bere barruan sartzen dira ere metatutako irabaziak edo eragiten dioten beste aldaketa batzuk».

Nolabait ere, ondare garbiak erakusten du enpresak hirugarrenetikiko ordainketa-obligazio guztiak kitatuko balitu geratuko litzatekeen aberastasun garbia. Jabeek enpresan duten partaidetzaren balioa da. Balio hori jabeek egindako ekarpenetatik edo enpresaren bizitzan zehar metatu eta banatu gabeko etekinetatik dator. Adibidez, enpresa batek 1.000.000 €-ko aktibo bat eta 200.000 €-ko pasibo bat baditu eta zor guztiak ordaintzen baditu, aktibotik 200.000 € hartuta ordainduko du. Geratzen dena, hau da, 800.000 €, ondare garbia da, eta jabeek enpresan duten partaidetzaren balioa adierazten du. Hori da haien aberastasun garbia edo netoa.

Enpresa batek irabaziak lortzen baditu, haren ondare garbia handitu egingo da, eta, ziurrenik, jabeak pozik egongo dira, aberastasun garbia handitu egin delako. Aldiz, enpresa batek galerak baditu, ondare garbia murriztu egingo da, eta, ziurrenik, jabeak ez dira hain pozik egongo, haien aberastasun garbia murriztu egin baita. Eta puntu honetara iritsita, galdera hau egin dezakegu: ondare garbia negatiboa izan daiteke? Zoritxarrez, erantzuna baiezkoa da. Enpresa batek bazkideen ekarpenak (kapitala) eta metatutako eta banatu gabeko mozkinak (erreserbak) gaintitzen dituzten galera metatuak baditu, haren ondare garbia negatiboa izango da. Horrek esan nahi du enpresa ez dela gai bere zorrak ordaintzeko, ezta bere aktibo guztiak salduta ere. Enpresa bat egoera horretara iristen denean, porrot teknikoan dagoela esaten da. Urtez urte galerak dituen enpresa bat egoera horretara irits daiteke.

Jarraian, pasiboaren eta ondare garbiaren zati diren ondare-elementuen adibide batzuk aurkeztuko ditugu.

Pasiboko elementuen adibideak.

- **Hornitzaileak:** epe laburreko zorrak salgaien edo lehengaien hornitzaileekin, fakturan edo antzeko agirietan dokumentatuak.
- **Zerbitzu-emateengatiko hartzekodunak:** epe laburreko zorrak zerbitzu-hornitzaileekin, fakturan edo antzeko agirietan dokumentatuak.
- **Epe luzeko edo laburreko ibilgetu-hornitzaileak:** zorrak ibilgetu-hornitzaileekin, fakturan edo antzeko agirietan dokumentatuak. Epe luzekoak edo epe laburrekoak dira, zorraren epemuga (ordainketa-data) urtebete baino gehiagokoa edo urtebetetik beherakoa den kontuan hartuta.
- **Kreditu-erakundeekiko epe luzeko edo laburreko zorrak:** enpresak kreditu-erakundeetatik jasotako maileguengatiko zorrak. Epe luzekoak edo laburrekoak dira, zorra itzultzeko dataren arabera.

Ondare garbiko elementuen adibideak.

- **Kapitala:** jabeek enpresari egindako ekarpenen balioa adierazten du.
- **Erreserbak:** enpresak bere jarduerarekin sortutako mozkinak dira, jabeen artean dibidendu gisa banatu ez direnak. Aurreko ekitaldietako zenbateko metatua jasotzen du.
- **Ekitaldiko emaitza:** enpresak ekitaldi ekonomiko batean garatutako jarduera ekonomikoarekin lortu duen irabaziaren edo galeraren zenbatekoa, banatzeko dagoena.

1.2.3. Oinarritzko ekuazioaren analisisa

Kontabilitatearen oinarritzko ekuazioaren osagaiak aurkeztu ondoren, orain haien esanahian sakontzea komeni da.

Aktiboaren aldeak enpresaren egitura ekonomikoa erakusten du. Enpresa-jarduera aurrera ateratzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideek osatzen dute.

Bestalde, pasiboaren eta ondare garbiaren aldeak enpresaren finantza-egitura islatzen du. Hemen enpresaren jarduerarako beharrezkoak diren aktiboak edo inbertsioak eskuratzeko ahalbidetzen duten finantzaketa-iturriak erakusten dira.

Pasiboan, hirugarrenek enpresaren esku jarritako finantza-baliabideak erakusten dira, eta, horien ondorioz, ordainketa-obligazioak edo zorrak sortzen dira. Enpresatik kanpoko finantzaketa-iturriak dira. Bestalde, ondare garbia ere finantzaketa-iturria da, nahiz eta kasu honetan finantza-baliabideak bazkideek ematen dituzten, bai zuzeneko ekarpenen bidez, bai banatu gabeko mozkinen bidez. Horregatik deitzen dira finantzaketa-iturri propioak.

Ikus daitekeenez, egitura ekonomiko osoari (inbertsioak) finantza-egitura batek eusten dio (finantzaketa), inbertsio guztiak egiteko lortutako baliabideen jatorriaren berri ematen duena. Horregatik, inbertsioaren balioa eta finantzaketarena beti berdinak dira, hau da, baliabideen aplikazioaren zenbatekoa eta jatorriarena berdinak dira.

Ondarearen oinarritzko ekuazioaren bi aldean arteko identitate hori hainbat modutan adieraz daiteke:

$$\text{Aktiboa} = \text{Pasiboa} + \text{Ondare garbia}$$

$$\text{Egitura ekonomikoa} = \text{Finantza-egitura}$$

$$\text{Inbertsioa} = \text{Finantzaketa}$$

$$\text{Funtsen aplikazioa} = \text{Funtsen jatorria}$$

Ikus daitekeenez, kontabilitatearen oinarritzko identitateak enpresa-ondarearen bi aldeak islatzen ditu, eta berdintasun horiek guztiak beti betetzen dira enpresaren bizitza osoan eta edozein enpresatan. Enpresak aktiboren bat badu (baliabideen aplikazioa), hori eskuratzeko behar diren funtsak nonbaitetik aterako dira nahitaez (baliabideen jatorria), ez baitago inbertsiorik finantzaketarik gabe (norberarena edo besterena).

Ikus ditzagun adibide batzuk enpresaren eragiketek ondarearen oinarritzko ekuazioan duten eragina azaltzeko:

1. ADIBIDEA. Bazkide batzuek ALFA enpresa sortu dute, bankuko kontu korrontean 50.000 €-ko ekarpena eginez.

Aktiboa	= Pasiboa	+ Ondare garbia
Bankuko dirua	=	Ondare garbia
50.000	=	50.000

2. ADIBIDEA. ALFA enpresak eraikin bat erosi du 40.000 €-ren truke; ordainketa banku-transferentzia bidez egin da.

Aktiboa	= Pasiboa	+ Ondare garbia
Bankuko dirua + Eraikina	=	Ondare garbia
10.000 + 40.000	=	50.000

3. ADIBIDEA. ALFA enpresak 40.000 €-ko banku-mailegua eskatu du eta bankuko kontu korrontean sartu du dirua.

Aktiboa	= Pasiboa	+ Ondare garbia
Bankuko dirua + Eraikina	= Mailegua	+ Ondare garbia
50.000 + 40.000	= 40.000	+ 50.000

4. ADIBIDEA. ALFA enpresak banku-maileguaren 20.000 € itzuli ditu, kontu korronteko dirua erabiliz.

Aktiboa	= Pasiboa	+ Ondare garbia
Bankuko dirua + Eraikina	= Mailegua	+ Ondare garbia
30.000 + 40.000	= 20.000	+ 50.000

Eragiketa bakoitzak enpresa-ondarearen osaera aldatzen du, eta gutxienez bi elementutan eragiten du mugimendua (aktiboan, pasiboan edo ondare garbian). Hala ere, kontabilitatearen oinarritzko ekuazioa beti betetzen da, erregistratutako eragiketak edozein direla ere.

1.3. ONDARE-MASAK

Adierazi dugunez, ondarearen oinarritzko ekuazioa honako hau da:

$$\text{Aktiboa} = \text{Pasiboa} + \text{Ondare garbia}$$

Ekuazio horretako elementu bakoitza ekonomia- edo finantza-esanahi bera duten ondare-elementuak biltzen dituen ondare-masa bat da. Ondare-elementu guztiak funtsezko hiru masa horietako batean sailka daitezke (aktiboa, pasiboa eta ondare garbia).

Hala ere, ondare-masa hauetako bakoitza hainbat irizpide erabiliz banatzen da, eta aktiboaren, pasiboaren eta ondare garbiaren barruan azpitalde desberdinak sortzen dira horrela.

Aktiboan, lehenengo azpibanaketa egiten da, ondasunek eta eskubideek enpresa-ondarean duten iraupenaren arabera. Irizpide horren arabera, aktiboa aktibo ez-korrontean (aktibo finko edo ibilgetu ere esaten zaio) eta aktibo korrontean (aktibo zirkulatzailerik ere esaten zaio) banatzen da.

Aktibo ez-korronteak denbora luzez enpresan erabiltzen diren elementuak biltzen ditu (eraikuntzak, makineria, lursailak, etab.). Enpresak epe luzean mantentzeko asmoa duen finantza-inbertsioak dira. Aktibo ez-korronteak edo ibilgetuak likideziaz urrun dauden elementuak jasotzen ditu, enpresak ez baitu epe laburrean horiek diru bihurtzeko asmorik. Enpresan «ibilgetuta» («geldirik») dauden elementuak dira.

Aktibo korronteak enpresan bizitza laburra duten ondasunak eta eskubideak barneratzen ditu. Elementu horietako askok aldaketa ugari izaten dituzte jarduera ekonomikoaren ondorioz. Adibidez, salgaiak erosi eta saldu egiten dira, dirua bankuko kontutik sartzen eta irteten da kobrantzak eta ordainketak egitean, etab.

Pasiboa ere bi zatitan banatzen da: pasibo ez-korrontea (edo finkoa) eta pasibo korrontea (edo zirkulatzailerik). Pasibo ez-korrontean epe luzean hirugarrenei ordaindu beharreko zorrak sartzen dira (epe luzeko zorrak). Eta pasibo korrontean epe laburrean itzuli beharreko zorrak biltzen dira (epe laburreko zorrak).

Argi dago aktiboaren edo pasiboaren elementu bat korronte edo ez-korronte gisa sailkatzeko beharrezkoa dela epe laburra eta luzea banatzen dituen denbora-tartea mugatzea. Teorian, epe laburra eta luzea bereizteko, enpresaren batez besteko heltze-aldia hartu beharko litzateke kontuan, hau da, produkzio-prozesuan diru-unitate bat erabiltzen denetik enpresak garatutako jardueraren ondorioz hura berreskuratzen den arte igarotzen den denbora. Heltze-aldi hori aldatu egin daiteke enpresa batzuetatik besteetara.

Hala ere, enpresek osatzen duten kontabilitate-informazioa homogeneizatzeko, kontabilitate-araudiak epe luzearen eta laburraren arteko muga **12 hilabetetan** ezartzen du.

Ondorioz, 12 hilabetetik gorako iraupen- edo galdagarritasun-aldia duten aktibo eta pasiboko ondare-elementuak epe luzeko partidatzat hartzen dira. Eta urtebete baino gutxiagoko iraupena edo galdagarritasuna duten elementuak epe laburreko partidatzat hartzen dira. Beraz:

- Epe luzea: 12 hilabete baino gehiago.
- Epe laburra: 12 hilabete edo gutxiago.

Adibidez, bankuari mailegua eskatzen bazaio, eta mailegua 5 urte barru osorik itzuli behar bada, zorra pasibo ez-korrontean sailkatuko da, epe luzeko zorra delako. Aldiz, mailegua 3 hilabeteren buruan itzuli behar izango balitz, zorra epe laburrekoa izango litzateke eta pasibo korrontean sartuko litzateke.

Ondare garbian, ez da beharrezkoa epe luzea eta epe laburra bereiztea; izan ere, enpresa funtzionatzen ari den bitartean, jabeek ezin dute ondare garbia eskatu. Hala ere, ondare garbia honako elementu hauetan banatzen da:

Ondare garbia	Kapitala
	Erreserbak
	Emaitza

Kapitalak enpresa sortzen den unean edo geroagoko uneren batean jabeek egindako zuzeneko ekarpena erakusten du. Erreserbek enpresak aurreko ekitaldian lortu eta jabeen artean banatu ez diren irabaziak erakusten dituzte. Eta emaitzak enpresaren ondare garbiak jarduera ekonomikoaren ondorioz jasan duen aldaketa islatzen du.

Laburbilduz, aktiboaren elementuak likidezia-maila txikienetik handienera ordenatzen baditugu, aktiboaren egitura honela geratuko da:

Aktiboa	Ez-korrontea (finkoa)	Lurra, makineria, etab.
		Aplikazio informatikoak, patenteak, etab.
		Errenta finkoko baloreak
	Korrontea (zirkulatuzailea)	Bezeraok, izakinak, etab.
		Bankuak k/k, kutxa, etab.

Eta enpresaren finantzaketa-iturrietara joaten bagara, eta pasiboa itzultzeko epearen arabera ordenatzen badugu, egitura hau geratuko zaigu:

Ondare garbia (baliabide propioak)	Kapitala	
	Erreserbak	
	Emaitza	
Pasiboa (besteren baliabideak)	Ez-korrontea (finkoa)	Epe luzeko banku-maileguak, epe luzeko ibilgetu-hornitzaileak, etab.
	Korrontea (zirkulatzailea)	Hornitzaileak, epe laburreko hartzekodunak, epe laburreko banku-maileguak, etab.

1.4. EGOERA-BALANTZEA

Enpresa batek dituen ondare-elementuen deskribapena erakusteko erabiltzen den kontabilitate-agiriari egoera-balantze esaten zaio. Dokumentu honek enpresak data jakin batean duen ondarearen ikuspegia ematen du. Egoera-balantzea enpresaren errealitate ekonomikoa (aktiboa) eta finantza-errealitatea (pasiboa eta ondare garbia) erakusten dituen finantza-agiria da. Data jakin batean enpresa-ondarea osatzen duten ondare-elementuen argazki bat erakusten du, ondare-masetan antolatuta eta diru-unitateetan balioetsita.

Egoera-balantzea dokumentu estatikoa da, eta enpresaren une jakin bateko ikuspegi ekonomiko-finantzarioa zein den adierazten du. Egoera-balantzea urteko kontuen barruan dago, galdu-irabazien kontuarekin, memoriarekin, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriarekin eta diru-fluxuen egoera-orriarekin batera. Urteko kontu horiek nahitaez urtean behin egin behar dira, gutxienez.

Balantzea bi zutaberen bidez adierazten da: bata aktiboko elementuekin eta bestea pasiboko eta ondare garbiko elementuekin. Ondorioz, kontabilitatearen oinarrizko ekuazioaren egitura berbera duela ikus dezakegu. Eta ekuazio hori une guztietan betetzen denez, balantzearen zutabe bakoitzeko kopuruen baturek ere berdinak izan behar dute.

Era berean, balantzea egitean, aktiboa eta pasiboa ez-korrontean edo korrontean zatitzea ere kontuan hartu behar da. Horrela, aktiboak enpresan iraungo duten denboraren arabera sailkatuko dira, eta pasiboak zorrak itzultzeko epearen arabera multzokatuko dira.

ADIBIDEA. 20X0ko urtarrilaren leian, BETA enpresaren balantzea osatu nahi da kontuan hartuz 70.000 €-ko balioa duen eraikin bat, 80.000 €-ko balioa duen makineria eta 35.000 €-ko saldoa duen bankuko kontu korrontea dituela. Enpresak 70.000 €-ko banku-mailegua du, eta 2 urte barru itzuli behar du osorik. Gainera, 20.000 € zor dizkio makineriaren hornitzaileari, eta sei hilabete barru ordaindu behar ditu. Jabeen hasierako ekarpena 95.000 €-koa izan zen.

BETA enpresaren balantzea, 20X0ko urtarrilaren leian.

Aktiboa		Ondare garbia eta Pasiboa	
Aktibo ez-korrontea	150.000	Ondare garbia	95.000
Eraikuntzak	70.000	Kapitala	95.000
Makineria	80.000		
		Pasibo ez-korrontea	70.000
Aktibo korrontea	35.000	Epe luzeko zorrak	70.000
Bankuak	35.000		
		Pasiboa korrontea	20.000
		Epe laburreko ibilgetu hornitzaileak	20.000
Guztira	185.000	Guztira	185.000

Ikus daitekeenez, balantzearen goiburuan beti adierazi behar dira enpresaren izena eta balantzea egiteko data.

1.5. INBENTARIOA ETA KONTUEN TAULA

Inbentarioa une jakin batean enpresa-ondarea osatzen duten elementu guztiak deskribatzera eta balioestera eramaten duen zenbaketa fisikoa da.

Inbentarioko datuak inbentario-egoera edo kontabilitatetik kanpoko balantzea izeneko dokumentu batean jasotzen dira. Logikoaenez, ondarearen osagaien zehetasun oso zehatza nahi dugunean, osagai horiek izendatzeko eta aurkezteko moduari dagokionez, normalena da heterogeneotasun handia izatea. Demagun hiru pertsonak arropa-denda bateko inbentarioa egiten dutela. Pertsona horietako bakoitzak denda horretan dauden ondasun, eskubide eta obligazio guztien zenbaketa fisikoa eta elementu bakoitzaren balioespen ekonomikoa egingo ditu. Espero izatekoa da pertsona bakoitzak elementuen zerrenda desberdin bat egitea, elementu bakoitza izendatzeko edo elementu horiek taldekatzeko modua aldatu egin baitaiteke pertsona batetik bestera. Hala, inbentario desberdinak izango genituzke.

Erraza da imajinatzea enpresa bakoitzak bere ondare-elementuak nahi duen moduan izendatuko balitu, enpresa bakoitzaren informazioa alderatzea oso zaila izango litzatekeela. Horregatik, inbentarioaren lehen bertsio batean ondare-elementuei edozein izen eman dakiekeen arren, une batean elementu horiek

terminologia normalizatu bat erabiliz adierazi behar dira, kontabilitate-informazioa enpresen artean konparagarria izan dadin.

Kontabilitate-terminologiaren bateratze hori KPoren (Kontabilitate Plan Orokorra) bidez gauzatzen da. Plan horrek, besteak beste, ondare-elementuei aplikatu beharreko izendapenen zerrenda bat aurkezten du, dagozkien definizioekin eta azalpenekin batera. Elementu bakoitza kontu baten bidez adierazten da. Horrela, adibidez, gure arropa-dendan salgai dauden jantzi guztiei «salgaiak» esaten zaie, KPoren arabera. Eta beste arropa-denda batzuek, estilo askotakoak izan arren, berdin izendatuko dituzte salgai dituzten arropa guztiak.

Kontabilitate Plan Orokorreko kontuen taulak terminologia normalizatuan adierazitako ondare-elementu guztien zerrenda jasotzen du. Kontu guztiek kontu-zenbaki bat eta deskribapen bat dute. Kontuen taula 9 kontu-taldetan antolatuta dago hierarkikoki, eta talde bakoitzak desagregazio-maila jakin bat du (digitu bateko kontuak, 2 digituko kontuak, 3 digituko kontuak, etab.).

Kontuen taularen antolaketa hierarkikoaren adibidea.

2. TALDEA: AKTIBO EZ-KORRONTEA

20. IBILGETU UKIEZINAK

- 200. Ikerketa
- 201. Garapena
- 202. Emakida administratiboak
- 203. Jabetza industrialak
- 204. Merkataritza-funtsa
- 205. Eskualdatze-eskubideak
- 206. Aplikazio informatikoak
- 209. Ibilgetu ukiezineterako aurrerakinak

21. IBILGETU MATERIALAK

- 210. Lurrak eta ondasun naturalak
- 211. Eraikuntzak
- 212. Instalazio teknikoak
- 213. Makineria
- 214. Tresneria
- 215. Beste zenbait instalazio
- 216. Altzariak
- 217. Informazio-prozesuetarako ekipamenduak
- 218. Garraio-elementuak
- 219. Bestelako ibilgetu materiala

Gaur egun, 9 kontu-talde hauek daude:

- 1. Oinarrizko finantzaketa:** epe luzeko norberaren edo besteren finantzaketari lotutako elementuak biltzen ditu.
- 2. Aktibo ez-korrontea:** enpresa-ondarean epe luzera mantentzen diren ondasunak eta eskubideak biltzen ditu.
- 3. Izakinak:** enpresak eraldatzen eta saltzen dituen lehengai, produktu bukatu eta abarrak biltzen ditu.
- 4. Merkataritza-eragiketengatiko hartzekodunak eta zordunak:** jatorria enpresaren merkataritza-eragiketetan duten epe laburreko ondasun, eskubide eta obligazioak jasotzen ditu.
- 5. Finantza-kontuak:** jatorria enpresaren finantza-eragiketetan duten epe laburreko ondasun, eskubide eta obligazio guztiak biltzen ditu.
- 6. Erosketak eta gastuak:** ekitaldi ekonomikoko gastu eta galera guztiak barneratzen ditu.
- 7. Salmentak eta sarrerak:** ekitaldi ekonomikoko sarrera eta irabazi guztiak biltzen ditu.
- 8. Ondare garbira egotzitako gastuak:** galdu-irabazien kontuan jasotzen ez diren eta zuzenean ondare garbira egozten diren gastuen multzoa jasotzen du.
- 9. Ondare garbira egotzitako sarrerak:** galdu-irabazien kontuan jasotzen ez diren eta zuzenean ondare garbira egozten diren sarrerak biltzen ditu.

Garrantzitsua da azpimarratzea kontu-talde bakoitza finantza-agiri jakin batean jasotzen dela. Lehenengo 5 taldeetako kontuak egoera-balantzean jasotzen dira; 6. eta 7. taldeetako kontuak, galdu-irabazien kontuan; eta 8. eta 9. taldeetako kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian. Liburu honetan, 1etik 7ra bitarteko taldeekin baino ez dugu lan egingo.

Egoera-balantzearen adibidea, kontuen taula erabiliz.

Aktiboa		Ondare garbia eta Pasiboa	
Aktibo ez-korrontea	261.700	Ondare garbia	160.000
(211) Eraikuntzak	210.000	(100) Kapitala	160.000
(210) Lurrak	30.000	Pasibo ez-korrontea	100.000
(218) Garraio-elementuak	18.000	(170) Epe luzeko zorrak	100.000
(217) Ekipo informatikoak	2.500	Pasibo korrontea	16.000
(206) Aplikazio informatikoak	1.200	(520) Epe laburreko zorrak	14.000
Aktibo korrontea	14.300	(475) Ogasun Publikoa, hartzekoduna	2.000
(572) Bankuak k/k	14.300		
Guztira	276.000	Guztira	276.000

1.6. ARIKETAK

1.1. ariketa

Ibilgailuen salerosketan aritzen den sozietate batek inbentario bat egin du 20X2/12/31n. Inbentario horretan agertzen diren ondare-elementuak zerrendatu ditugu. Horiiek kontuan hartuz, egin ezazu 20X2ko ekitaldiko bukaerako egoera-balantzea (kodifikatu kontuak 3 digitu erabiliz).

1. Ibilgailuen erakusketarako orubea	5.000
2. Bulegoetarako eraikina	12.000
3. Tailerretarako eraikina	4.000
4. Kontu korronteko saldoak (k/k)	600
5. Salmentarako ibilgailuak	8.000
6. Ibilgailu-ekoizleekin ditugun zorrak	2.000
7. Ordaintzeko dauden Ogasun Publikoarekiko zorrak	500
8. Kutzako dirua	88
9. Banku-erakundeek emandako epe luzeko maileguak	3.000
10. Ibilgailuen salmentagatik kobratzeko dauden diru-kopuruak	800
11. Gerenteak erabiltzeko ibilgailua	1.500
12. Zenbait altzari	2.300

1.2. ariketa

Osatu egoera-balantzea honako ondare-elementu hauekin (kodifikatu kontuak 3 digitu erabiliz):

1. Subprime bankua k/k	1.000
2. Crunch bankua k/k	3.000
3. Altzariak	2.500
4. Makineria	3.000
5. Garraio-elementuak	2.000
6. Salgaiak	1.500
7. Hornitzaileak	700
8. Bezeroak	600
9. Bi urtera ordaindu behar diren ibilgetu-hornitzaileekiko zorrak	1.000
10. Eratutako fidantzak	900
11. Bankuari hiru urtera itzuli beharreko mailegua	3.000

12. EasyMoney bankuko kreditu-kontua	800
13. Enpresako langileei emandako kredituak	500
14. Enpresako langileei emandako ordainsari-aurrerakinak	200
15. Gizarte Segurantzarekiko zorrak, 15 egunera ordaindu beharrekoak	70
16. Gizarte Segurantzako organismoak, zordunak	50
17. Ogasun Publikoa hartzekoduna	120
18. Kutxa	25
19. Kutxa, atzerri-dirua	15
20. Repsolen akzioetan egindako epe luzeko inbertsioa	100
21. KAPITALA	?

1.3. ariketa

Oinetakoak ekoitzi eta saltzen dituen enpresa batek honako inbentarioa du 20X3ko ekitaldiaren hasieran:

1. Eraikina (orubearen balioa % 20)	10.000
2. Oinetakoak ekoizteko makineria	3.000
3. Bulegoko altzariak, aulkiak, lanparak	500
4. Ordenagailuak	3.000
5. Artikuluak garraiatzeko kamioi bat	3.000
6. Larru, goma eta lokarrien izakinak	1.500
7. Salmentarako oinetakoen izakinak	3.000
8. Kontu korronteko saldoak	2.500
9. Hornitzaileei ordaindu behar dieguna	250
10. Lau urterako eskuratutako mailegua	3.200
11. Kutxako dirua	150
12. Gizarte Segurantzari hilabete barru ordaindu beharrekoa	100
13. Zerga-itzulketengatik Ogasun Publikotik kobratu beharrekoa	25
14. Finantza-erakundeetan ditugun epe finkoko inbertsioak	500
15. Beste enpresa bateko bonuetan egindako inbertsioak	300
16. Iberdrolaren akzioetan egindako epe luzeko inbertsioak	100
17. Oinetakoen erosleengandik kobratu beharrekoak	700
18. Oinetakoak garraiatzeko kartoizko kaxak	200
19. Ordaintzeko dagoen zerga-aholkulariaren faktura	125

Inbentario hori erabiliz eta kontuak hiru digiturekin kodifikatuz, osa ezazu hasierako egoera-balantzea.

1.4. ariketa

IceAge SA enpresak izozkiak ekoitzi eta saltzen ditu. 20X0ko abenduaren 31n langile bati enpresako ondarearen inbentarioa egitea eskatu zaio. Langile horrek ondare-elementu guztien balioespena jasotzen duen zerrenda Kontabilitateko Sailari eman dio. Datu horiekin, ondare-elementu bakoitzari dagokion kontabilitate-kontua lotu behar zaio eta, ondoren, 20X0ko abenduaren 31ko egoera-balantzea osatu behar da.

1. Enpresako jabeek enpresari egindako ekarpenak	67.000
2. Kutxako eskudirua	500
3. Lehengai-erosketen ondorioz ditugun zorrak, fakturekin justifikatuak	12.000
4. Madoff bankuan dugun kontu korronteko dirua	2.500
5. Madoff bankuak emandako mailegua, bost urteren buruan itzuli behar dena	40.000
6. Enpresak erabiltzen duen pabiloi industrialak	40.000
7. Pabiloi industrialak hartzen duen orubea	10.000
8. Banaketarako furgoneta	12.000
9. Izozkiak egiteko makinak	20.000
10. Izozkien salmentagatik bezeroekiko kobrantza-eskubideak, fakturekin justifikatuak	6.000
11. Biltegian dauden produktu bukatuen izakinak	30.000
12. Plagioak ekiditeko patentatutako marka	18.000
13. Biltegian dauden lehengai-izakinak	3.000
14. Langileei ordaintzeko ordainsariak	10.800
15. Ordaintzeko dagoen argiaren faktura	3.200
16. Epe luzeko inbertsio bezala erositako Arra SA enpresaren akzioak	5.000
17. Ogasun Publikoarekin ditugun epe laburreko zorrak	2.000
18. JP-Goldman bankuak emandako mailegua, hiru hilabete barru itzuli behar dena	12.000

a) Zehaztu elementu bakoitzari dagokion kontua eta ondare-masa.

b) Osatu 20X0ko abenduaren 31ko egoera-balantzea.

1.5. ariketa

20X1eko urtarrilaren leian, surfeko produktuak saltzen dituen Left Wave SA enpresak honako ondare hau dauka:

- Lokal bat: 100.000 €.
- Altzariak: 1.500 €.
- Ordenagailu eramangarri bat eta inprimagailua: 1.200 €.
- Saltzeko dauden surf-taulen izakinak: 30.000 €.
- Bezeroekiko kobrantza-eskubideak: 2.000 €.
- Surf-taulen hornitzaile batekin dituen epe laburreko zorrak: 12.000 €.
- Overseas Bank kreditu-erakundeak emandako mailegua, bost urte barru itzuli beharrekoa: 15.000 €.

a) Sailkatu elementu bakoitza azpiko taulan eta kalkulatu une honetan enpresak duen ondare garbiaren balioa.

	Elementua	Balioespena
Ondasunak		
Eskubideak		
Obligazioak		
Ondare garbia		

b) Taulako kontabilitate-egite bakoitzean, adierazi aitortu behar den elementua zein ondare-masatan sartuko litzatekeen (aktiboa, pasiboa edo ondare garbia) eta masa horren barruan nola sailkatuko litzatekeen.

Kontabilitate-egitea	Ondare-masa	Ondare-masaren barruko sailkapena
Aurrezki-kutxa bati zor dizkiogun epe luzeko zorrak		
Kontabilitatea eramateko aplikazio informatiko baten erosketa		
Kreditu-erakunde batean ireki dugun kontu korrontea		
20X0an lortutako mozkinak, oraindik banatu gabeak		
Udal-zergengatik udalarekin ditugun zorrak, aurten ordaindu beharrekoak		
Telefonicako akzioen erosketa, mozkina eskuratzeko asmoz, laster saltzekoak		
Lokal baten erosketa, alokatzeko asmoarekin		

1.6. ariketa

Azpiko taulako datuak osagai eta egitura metalikoak ekoizten dituen enpresa gipuzkoar bati dagozkio. Datu horiek Merkataritza Erregistrotik eskuratu ditugu eta egoera-balantzea erakusten digute (datuak eurotan daude).

Aktiboa	20X3	20X2	Ondare garbia eta Pasiboa	20X3	20X2
Aplikazio informatikoak	20.550	24.313	Funts propioak	454.000	428.000
Lurrak	370.000	411.668	Ogasun Publikoa hartzekoduna	42.000	10.000
Instalazio teknikoak	252.000	252.000	Epe luzeko zorrak	157.531	130.000
Epe luzeko balore negoziagarriak	87.300	86.400	Epe laburreko zorrak	227.000	315.000
Salgaiak	197.287	202.000	Hornitzaileak	222.714	226.409
Bezeroak	164.548	130.600			
Bankua k/k	11.001	2.003			
Kutxa	559	425			
Guztira	1.103.245	1.109.409	Guztira	1.103.245	1.109.409

Datu horiekin, bi urteetako egoera-balantzeak konparatzea eskatzen da. Hain zuzen ere:

- Zein izan da bi urteen artean aktibo totalaren diferentzia eta zein dira diferentzia hori azaltzen duten elementuak?
- Zein izan da bi urteen artean pasibo totalaren diferentzia eta zein dira diferentzia hori azaltzen duten elementuak?
- Zein izan da bi urte horietan enpresaren ondare garbiak izan duen aldaketa?
- Idatz ezazu enpresaren ondarearen ekuazioa bi ekitaldi ekonomikoetarako.

1.7. ariketa

A merkataritza-enpresak ondare-elementu hauek ditu kontabilizatuta:

Zerbitzu-emateengatikoko hartzekodunak	600
Hornitzaileei aurrerakinak	500
Jabeen ekarpenak	10.000
Bankuak k/k	12.000
Langileei emandako kreditua	3.000
Bankuko kreditu-kontua	2.400
Bezeroekiko kobrantza-eskubideak	2.000
Eratutako fidantzak	1.500
Salgaiak	5.000
Altzariak	9.000
Bi urtera ordaindu behar den mailegua	10.000
Ibilgetu-hornitzaileak	4.500
Salgai-hornitzaileak	2.500
Ogasunarekiko zorra	?

Zein da Ogasunarekiko zorraren zenbatekoa?

1.7. TEST MODUKO GALDETEGIA

1.1. galdera

Ondare garbia:

- a) Enpresa batek duen obligazio-multzoa da.
- b) Urteetan zehar enpresak metatutako mozkinen adierazle da soilik.
- c) Enpresako jabeena da.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

1.2. galdera

Urteko kontuen osagaiak hauek dira:

- a) Egunkari-liburua, egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria.
- b) Egunkari-liburua, egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua.
- c) Egunkari-liburua, liburu nagusia eta inbentario-liburua.
- d) Egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, memoria, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria.

1.3. galdera

Ondare garbia honela defini daiteke:

- a) Enpresako jabeen ekarpena.
- b) Eskrituratutako kapitala.
- c) Enpresako aktiboen eta pasiboen arteko diferentzia.
- d) Aurreko hiru erantzunak okerrak dira.

1.4. galdera

Kontabilitate Plan Orokorrean oinarritzko finantzaketa adierazten duen/duten taldea/k:

- a) Lehenengoa eta bigarrena dira.
- b) Seigarrena eta zazpigarrena dira.
- c) Lehenengoa, hirugarrena eta bosgarrena dira.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

1.5. galdera

Ekitaldi ekonomiko baten barruan, enpresak mozkinak lortzen baditu, orduan:

- a) Haren pasiboa gutxitu egingo da.
- b) Haren ondare garbia handitu egingo da.
- c) Haren aktiboa handitu egingo da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

1.6. galdera

Enpresa batek hiru urte barru itzuli behar duen mailegua eskuratzen badu, mailegu hori honako ondare-masan sartuko da:

- a) Aktibo ez-korrontean.
- b) Pasibo korrontean.
- c) Pasibo ez-korrontean.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

1.7. galdera

Egoera-balantzean agertzen diren kontuak talde hauetakoak dira:

- a) Sei eta zazpi.
- b) Batetik bostera bitartekoak.
- c) Bat, bi eta hiru.
- d) Guztiak.

1.8. galdera

Urte bat baino gutxiago irauten duten ondasun eta eskubideak biltzen dituen ondare-masaren izena honako hau da:

- a) Aktibo ez-korrontea.
- b) Aktibo korrontea.
- c) Pasibo ez-korrontea.
- d) Pasibo korrontea.

1.9. galdera

Egoera-balantzea:

- a) Enpresaren egitura ekonomikoa eta finantzarioa adierazten dituen dokumentua da.
- b) Une jakin batean, enpresak duen ondarearen sintesia da.
- c) Enpresa baten ondasun, eskubide eta obligazioen adierazle da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

1.10. galdera

Enpresak hirugarren pertsonekin dituen zorrek honako ondare-masa hau osatzen dute:

- a) Ondare garbia.
- b) Hartzekoa.
- c) Pasiboa.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

1.11. galdera

Kontabilitate-sistema bat martxan jarri nahi duen enpresak eman behar duen lehenengo pausoa hauxe izango da:

- a) Egoera-balantzea osatzea.
- b) Inbentarioa egitea.
- c) Kontu-taula definitzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.